



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ADISKIDE ETA SENIDE

2021 ASTE SANTUA

NERABERAK 14 - 16



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

PRESENTACIÓN GENERAL DE LA PROPUESTA

Ondorengo egunetan, eremua, jardunbideak, sentsazioak eta emozioak bizi izango ditugu elkarrekin, gure familiekin, elkartearekin eta Jesusekin. Jesusek egun hauek nola bizi izan zituen gogoratuko dugu.

Berarekin batera, bere heriotza eta berpizkundea gogoratuko ditugu, Pazkoak guretzat, kristauontzat, duen benetako esanahia ulertzeko.

Eta Pazkoa zer den eta zer esan nahi duen uler dezazuen, jolasez eta gogoeta eta geure barnealdera begiratzea ahalbideratuko diguten jardunbideez baliatuko gara.

Proposamena taldean lan egitea da. Egunero 3/4 ordu inguru lan egitea proposatzen dizuegu, alakeriarekin (ahal bada, zuzenean eta, bestela, on line), eta, ondoren, komunitateekin ospatu ahal izatea.

Proposatzen dizuegun materiala zuen errealitatera pixka bat egokitu dezazuen da; izan ere, agian, haur batzuk eta beste batzuk ez dira berdin sartzen. Proposamen bat da, baina gero errealitate bakoitzean dago pixka bat egokitze aukera.

Egunez egun egingo dugu, egun bakoitzari dagokion otoitza eginez, gauzak, sinboloak... aztertuz eta ulertuz. Eta egun bakoitzari dagozkion elementu horiek beren-beregi horretarako eratutako lekuan utziko ditugu gainerako egunetan ikusteko moduan. (Talderen batek online egiten badu, neska-mutiko bakoitzak presta dezala etxean/gelan, aldare antzeko bat).

Egun bakoitzeko lan proposamena:

Ostegun Santua:

- Egunez eguneko jardunbidearen azalpena, 10'
- Aukerak. ZURE ESKUA, 20'
- Pazko-jokoa, azalpena 60'
- Sinboloak, 10'
- NIRE BIHOTZA EMATEN DIZUTA jardunbidea, 30'
- Azken ospakizun-otoitza 30'

Ostiral Santua:

- Nork maite gaitu? Nork maite du mundua? Nola maitatzen dugu? (100min)
- Gurutze-bidea prestatu (45 min.)
- Gurutze bidea (75min)



Larunbata:

- Hasierako otoitzaldia, (30min)
- Basamortua, (90min)
- Pazko bezperako ospakizunaren prestaketa (60min)

OSTEGUN SANTUA

1 AKTIBITATEA -- PERTSONEN AUKERAK

- Orri bana eman neska-mutikoei jarraibideekin.
- Orri horretan, bakoitzak bere eskuaren silueta marraztuko du, hatzak bananduta daudela.
- Gero, hatzen arteko tartetean, adieraz dezatela sinbolo, hitz, esaldi... batez, galdera hauen erantzuna:

Erpuruan (hatz lodian): **Zer eskain dezaket egun hauetan?**

Hatz erakuslean (seinalatzen duena): **Zer dela-eta hartu dut parte hartzeko erabakia? Zeren bila ari naiz?**

Erdiko hatzean (handiena): **Nola nago? Nola doa nire bizimodua?**

Erastun-hatzean (konpromisoarena): **Zein onura atera nahi dut egunotatik?**

Hatz txikia (txikiena): **Zenbateraino konprometitu nahi dut?**

Marraskia egin eta galderei erantzun ondoren, saioak egiten diren gelako horman itsatsi orriak (edo bakoitzak bere gelan), gainerako egunetan ere horietan arreta jartzeko. Talde handian elkarriketan jardun: Erraza izan da? Zergatik? Nola sentitu naiz?... Batera jarri nahi den zerbait...

****Jarduera hau gordetzea proposatzen dugu, gero berriz ere azken ebaluaziorako erabili ahal izateko.**

2 AKTIBITATEA-- GURUTZEA

Pazko aldiko sinbolorik esanguratsuenetakoa, Gurutzea da. Gurutze horretan josi zuten Jesus eta hortxe eman zuen bere bizia gure alde.

Zirkulu handia egingo dugu, gauden guztion artean, eta bakoitzak bere izena esango du. Bere burua aurkeztu eta identifikatzerakoan, argazki hori paper batean itsatsiko du, eta pertsona guztien artean gurutze handi bat sortuko du, egun hauetan guztietan gurekin egongo dena. Gurutze horretan, Jesusen irudia identifikatu eta jarriko dugu.

Gurutzean garizuma-jardueran jarri zuten pertsonaren izena jartzeko ere eskatzen diegu (halakorik egin ez badute, bakoitzak bere herrialdetik beharragatik emigratu behar izan duen hurbileko pertsona baten izena bereiztea proposatzen diegu).

**** Aldez aurretik, parte-hartzaile bakoitzak txartel-argazki bat edo handiago bat ekartzeko eskatuko zaio.**

Pazko aldiaren aurretik gurutzeak egiteko jarraibideak:

-ZUREZKO GURUTZEA: <https://www.youtube.com/watch?v=R0XzrdkzXM8>

-PAPERREZKO GURUTZEA (ORIGAMI): <https://www.youtube.com/watch?v=Z9XEBCRIwyk>

3 AKTIBITATEA -- ZER DA ASTE SANTUA?

Bikoteka banatuko dira eta 3 txoko jarriko ditugu: lehenengoa, galderekin, bigarrena, probekin eta hirugarrena, puzzlearekin. Txoko batetik bestera igaroko dira, jokoak irauten dituen 40 minutuak bete arte (atarikoa).

Jokoari txoko baten hasi eta txokoz txoko txandakatuko dira (gerta liteke, beraz, txoko bakoitzean bikote bat baino gehiago egotea eta, horregatik, beraien arteko 'lehiaketa' antzekoa egin dezakete).


Lau minutuz egongo dira txoko bakoitzean eta ahalik eta galdera gehien erantzuten eta proba gehien burutzen saiatuko dira. Ondo erantzun edo egindako galdera edo proba bakoitzeko eta ondo jarritako puzzle-pieza bakoitzeko puntu bat jasoko dute. Lau minuturen buruan, beste txoko batera joango dira, 40 minutuak bete arte.

Jokora sartzeko, egin klik irudi bakoitzean eta deskargatu dokumentua.




GALDERAK

PROBAK



PICTIONARY

Jolasa amaitzen dutenean, puzzle bat emango zaie talde bakoitzari, piezak ebakita dituela, eta muntatzen saiatu beharko dute. Diru guztia jartzen badute, 7 puntu emango zaizkie. Eta puzzlea oso azkar amaitzen badute, han islatzen denaz dakitena azaltzeko eskatuko diegu.



**Egin klik hemen
puzzlea deskargatzeko**

Begiralearentzako oharra:

Denbora amaitzean irabazle den bikoteak gozoki-paketea jasoko du. Poltsa horretan, guztientzako gozoki bana aurkituko dute. Gozoki horiekin zer egingo duten ikusi beharko dugu. Begiraleak ez die hori esango, beste hau bakarrik:

“Zuon fitxarekin (joko honetan zeure bizitza irudikatzen du) Jesusen Berpizkundera iritsi zarete eta hauxe da dagokizuen saria.” (Gozoki-paketea eman).

Bi gauza gerta daitezke:

1. Gorde eta bikoteak bakarrik jan.

2. Taldekide guztien edo eskatzen dutenen artean banatu.

Eta, dena dela, gogoeta egin.

Hauek izan daitezke azalpenak edo antzeko zerbait esan daiteke, baina beti ere irakurri gabe, beraiei begira azalduz edo esanez baizik. Izan ere, adierazi nahi dugunak eragina izan dezan, ez dugu irakurri behar, esaten dieguna sinetsita azalduz baizik:

“Jesusen Berpizkundera gure bizitzarako zer esan nahi duen antzeman dezakegu (jokoa irabazi eta gozoki-paketea lortu). Baina gertaera horrek konpromisoa hartzea ez bagaramatza, zer esan nahi duen beste batzuei azaltzen ez badiegu, ez du ezertarako balio. Jokoaren bidez egin duguna, bizitzan egiten dugu: Aste Santua igaro, Eukaristiara joan,... eta berdin jarraitzen dugu, ezerk ez gaitu konprometitzen... Hori ez da kristau izatea. Pentsa ezazue guzti horretan Aste Santuan eta ez zaitezte pentsamendu hutsetan geratu...”

4 AKTIBITATEA -- SARRERA OSTEGUN SANTUARI ETA EGUNEKO SINBOLOAK

Sinboloak ikusteko moduan jarriko dira, eta azalpen labur bat egingo da.

Ostegun Santua, egun berezia da. Eliza bezala, Jesusek Gurutzeraino eramango zuen bideari ekin aurretik bere ikasleekin ospatu zuen azken afaria gogoratzen dugu. Horregatik deitzen da “azken afaria”, ostegunez Jesusek azken afaria ospatu zuelako lur honetako bizitzan, biharamunean gurutzean josita hil baitzen.



Jesusek, hil aurretik, oparia utzi zigun Bera gurekin eta gu Berarekin egon gintezen betirako: ogia eta ardoa. Ogia, zerutik jaitsia, Bera den ogia, bere gorputzarekin, bere odolarekin, bere arima eta jainkotasunarekin; horregatik diogu Eukaristiaren ogia dela.

Baina opari bikain hau egin aurretik, Jesusek zerbait egin zuen ikas dezagun: belaunikatu eta oinak garbitu zizkien ikasleei. “Apaltasuna” erakutsi zuen, beraz, geu ere apal eta on izan gaitezen geure artean.

Ezohiko zeinua da, Irakasleari ez ezik esklaboei dagokiena. Bere mezua laburbiltzen du eta apostoluei gainera datorrenari aurre egitean zein ikuspuntutatik jardun behar duten adierazten die.

Babes-jarrerak eta burujabetza-adierazpenak nagusi diren gizartean, Jesusek gure harrokeria beheratu eta gurutzea besarkatzea, bere gurutzea, gaur, besarkatzea, besteen zerbitzura jartzeko bide dela diosku. Txiki egiten dakitenen handitasuna da, bizira garaman heriotza.



Oinen garbiketaren zeinua egin ondoren, Jesus eta bere ikasleak mahaia inguruan eseri ziren afaltzeko. Zer jango ote zuten? Azken afari horretan, hauxe zen menua: bildotsa, belar garratzak, legamiarik gabeko ogia eta ardoa. Haragia, Bildots-haragia zen, baina ez bildoskia, Espiritu Santuaren sutan erretako Jainkoaren Bildotsaren haragia baizik; ogia, legamiarik gabekoa zen, ogi zuri, mehe eta zapala, baina ez ezagutzen dugun ogia, bere Gorputz berpiztua den Ogia baizik; belar garratzak zeuden, baina ez baratzean landatzen diren belar garratzak, Gurutzeko estualdiaren belar garratza baizik; eta bazen ardoa ere, baina ez mahatsetatik, lurreko mahatsondotik, ateratzen den ardoa, Ardo berezia baizik, Mahatsondo berezitik, benetako Mahatsondotik, Jesusengandik ateratako Ardoa, Jesusen odola, eskuetako, oinetako, buruko eta saihetseko zaurietatik ateratzen baita eta Meza Santuan ematen.



Jesusek, Baratzera otoitz egitera joan aurretik, agindu berria utzi zigun, maitasunaren agindua: Berak maite izan gaituen bezala, elkar maita dezagula esan zuen. Nola maitatu gintuen berak? Egundoko maitasunaz, gutariko bakoitzaren alde gurutzean josita hiltzera eramán zuen maitasunaz. Horrela maitatu behar dugu lagun hurkoa, ez maite duguna bakarrik, bata dela, bestea dela, maite ez duguna, hau da, gure arerioa ere bai. Jesusek beste hau ere esan zuelako: "Maita itzazue zuen etsaiak".

5 AKTIBITATEA-- NIRE BIHOTZA EMATEN DIZUT

Lagungarriak:

- Errotuladoreak, boligrafoak
- Erditik ebakitako bihotzak
- Zatar-papera
- Biblia
- Kandelak

Musika girotzeko



Begiralearentzako oharra:

Ahal izanez gero, une hau beste leku batean egingo da.

Lekua girotu: kandela, lepokoa, argi ahula, Biblia, gurutzeak,...

Hasteko, musika jarri girotzeko (jarrera eroso har dezatela, begiak itxi eta arnasketan arreta jartzen saia daitezela.

Jardunbide honen bidez, nola zerbitzatzen eta maitatzen ditugun besteak hausnartuko dugu. Horrezaz gainera, Garizuma aldiko lagungarrien bidez landutako gaia gogoan izango dugu. Gure inguruko gazte etorkinak.

Aurretik gurutzeetan gogoratutako izenak kontuan hartuko ditugu.

Hasteko, erditik ebakitako bihotza banatuko diegu. Bakarka, ikastetxera, koadrilara, aisialdiko taldera, e.a., iritsitako **lagun baten integrazioa ahalbideratzeko egin duten zerbait idatziko dute** erdi batean.



Nola hartu dut beste
lagun hori?

Bihotzaren beste erdian, beraiek, leku, ikastetxe, talde, jarduera... **edo zerbaitera heltzean norbaitengandik jasotako zerbait (zeinua, jarrera, hitza...) idatziko dute.**



Nola hartu naute?

Ondoren, bihotzaren bi erdiak elkartuko dituzte eta, erdian, ekintza harreragile horiek ahalbideratu dituzten baterako jarrerak (eredua, maitasuna, samurtasuna, konfiantza...) idatziko dituzte.

Amaitzeaz batera, jar ditzatela bihotzak erdian ipinitako zatar-paperrean eta idatzitakoa batera jar dezatela.

Jarduera amaituta, ebanjelioko pasarte hau irakurriko dugu (neska-mutiko batek irakur dezake):

Pazko-jaia gainean zen. Jesusek bazekien mundu hau utzi eta Aitarengana joateko ordua iritsi zitzaiona. Munduan ziren beretarrak beti maite izan zituelarik, azkenean bete-betean maitatu zituen. Deabruak Simon Iskariotereren seme Judasi sartua zion buruan Jesus saltzeko asmoa. Jesusek bazekien dena bere esku jarri ziola Aitak, eta Jainkoarengandik etorria zela eta Jainkoarengana zihoala. Afaltzen ari zela, mahaitik jaiki, soingainekoa erantzi eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen. Ondoren, ura konketara bota eta ikasleei oinak garbitzen hasi zen, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen. Simon Pedroarengana iritsi zenean, honek esan zion:

–Jauna, zuk niri oinak garbitu?

Jesusek erantzun zion:

–Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen, geroago ulertuko duzu.

Pedrok, berriro:

–Zuk ez didazu sekula niri oinik garbituko.

Jesusek erantzun:

–Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango.

Simon Pedrok esan zion:

–Jauna, orduan, oinak ez ezik, eskuak eta burua ere bai.

Jesusek erantzun:

–Bainatu denak ez du garbitu beharrik, erabat garbi baitago, eta zuek garbi zaudete, baina ez denok.

Izan ere, bazekien zeinek salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi».

Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien:

–Ulertzen duzue egin dizuedana? Zuek Maisu eta Jauna deitzen didazue, eta arrazoi duzue, halaxe bainaiz. Beraz, nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere garbitu oinak elkarri. Ikasbide eman dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe, joka dezazuen. Bene-benetan diotsuet: Ez da morroia nagusia baino handiago, ezta bidalia ere bidaltzailea baino handiago. Ulertzen duzue hau, ezta? Bada, zorionekoak izango zarete, betetzen baduzue.



JN 13, 1-17

Begiralearentzako oharra -- Testuaren inguruko gogoeta neska-mutikoei azaltzeko

Jesusek eskema guztiak hausten ditu. Juduen artean ez zen inoiz horrelakorik ikusi. Irakasle, profeta, errege eta jaun handiek beti eutsi izan zioten beren postuari gainerako gizonen aurrean. Baina Jesus, Irakaslea, Profeta, Erregea, Jauna erabat beharatu da morroi bihurtu eta ikasleei oinak garbitzeraino. Jainkoaren duintasuna murriztu egin ote du horrek? Ez, alderantziz, bere handitasuna goratu egin du.


Kristoren handitasuna bere jainkotasunean datza eta baita bere txikitasunean ere, gizon handia bakarrik baita txiki egiteko gauza. Egundoko kontraesana, paradoxa... Alderantziz, munduak goratzera, handitzera garamatza eta debekatuta dago txiki bihurtzea. Jainkoaren Ama, Santuak, Eliza, beti txikitu izan dira, handitasuna ez datza-eta norberarengan, Jainkoarengan baizik.

Eskerrik asko, Jauna, zure maitasunagatik. Eskerrik asko zure ereduagatik. Eskerrik asko, "Jainkoa gurekin" izateagatik. Ez zaude guregandik urrun, gertukoa zara, adiskidea. Eskerrik asko zure adiskidetasun, eroapen eta barkamenagatik. Eskerrik asko Sortze Garbiarengatik

Neska-mutikoek begiak itxi ditzatela ondorengo abesti hau entzuteko:



Abestia entzuteko



**Hitza
deskargatzeko**

Gogoeta egin eta abestia entzun ondoren, gai batzuk proposatzen dizkizuegu:

- Noiz jarri naiz besteen zerbitzura?
- Noiz maitatu dut baldintzarik gabe?
- Besteak maitatzea, nork bere burua besteen alde ematea, eroen kontua ote da?

Begiralearentzako oharra

Kristau senez maitatu

Baina, kristau maitasuna zirkularra da. Gure bizitzako gauzarik garrantzitsuena, baldintza barik maitatu izan gaituela esperimentatu dugu gaur. Beharbada oraindik ez dugu antzeman, baina egia da. Maitasunez sortuak izan gara.

Maitasuna hasiera-hasieratik agertu izan da gure bizitzan. Maitasun eskuzabala, doakoa, musu-truk emandakoa. Maitatu baizik ez zaitu egin, trukean gauza bera eskatu gabe. Maitasun horren izena, Jainkoa da. Eta maite zaituen jainkoaren misterioa ospatuko dugu gaur Eukaristian.

Eta horretaz jabetzen denak, zera galdetzen du: zer egin dezaket hainbeste maitasun jaso eta gero? Eman egin behar dugu, hori baita egoki eta zuzena. Eman, nori eta itzuliko didan pentsatu gabe. Eman eta maitasunezko katea sortu gure bizitzan.



OSTIRAL SANTUA

Bigarren egun honetan, Jesusen nekaldia eta gurutzeko heriotza gogoratu eta, nolabait, bizi egin nahi dugu. Sufrimenduz beteriko eguna da gaurkoa, baina, aldi berean, itxaropenez ere bizi dezakegu. Jesusen heriotzaren aurreko uneetan jarriko dugu arreta, Gurutzerainoko bidean, berarekin emango ditugu azken urratsak.

Otoitz eginez emango diogu hasiera egunari, isiltasuna egin eta, apurka-apurka, Ostiral Santuan murgiltzeko.

1 AKTIBITATEA -- NORK MAITE GAITU? NORK MAITE DU MUNDUA? NOLAKO MUNDUA NAHI DUGU?

Helburuak:

- Bakoitzak lortu nahi duena lortzeko izan ditzakegun zailtasunez jabetu.
- Besteen alde bizia emateari dagokion balioa eman.
- Eguneroko bizitzan egin ditzakegun zeinu txiki eta bakunak aurkitu.



1. ZATIA: ZURE BIZITZAKO BIDAIA

Badakigu ez dena zure bizitzako bidaia, baina beren bizitzako bidaia bada.

Gaur egun bizi dugun errefuxiatu eta etorkinen krisia, handiena da bigarren mundu gerraren amaieratik. Sentsibilizaziorako jarduera honen bitartez, mundu osoko etorkin eta errefuxiatuekin, heldu nahiz haurrekin, bat egin nahi dugu eta beren egoeraren berri eman. Honako jardunbide hau, bidaia da, eta etorkinek jasaten dituzten egoeren ezagutza dago jomugan. Oztopoz beteriko bidaia da, jomuga ezezagun eta zalantzazkoa duena eta, aldi berean, gehienetan zapuztu egiten diren ametssez eta itxaropenez beterikoa.



Bideoa ikusi ondoren, hiruzpalau lagunez osaturiko taldeetan batu eta ondorengo galderei erantzun diezaietela:

- Gustatu zaizu bideoa? Zergatik bai? Zergatik ez?
 - Zer nabarmenduko zenuke bideoan?
 - Zer gertatu zaizu harrigarrien?
-
- Etorkin eta errefuxiatuek bizimodu hobearen bila ihes egiten duten bidaia horrelakoa zela pentsatzen zenuen?
 - Bidaia hori nolakoa den jakinda, zer esango zenuke egoera honetaz?
 - Zer sentitzen ote dute oztopoz eta arriskuz beteriko bidaia hori egitera behartuta dauden pertsonak?
 - Berehala gerra piztuko dela-eta, zure herrialdetik atera beharrean egongo bazina, zer egingo zenukete zuk eta gainerako senideek?
 - Zer egin ote dezakete gainerako herrialdeek krisi humanitario honen aurrean?
 - Eta guk geuk, zer egin dezakegu egoera horretan?

2. ZATIA


Benetako maitasuna, besteen alde bizia emateko gauza den maitasuna dela esaten da. Jesusek egin zuen... Besteen alde hitzeko gai izango ginateke? (eman astia bakarka erantzun dezaten; erantzuten saia daitezela, zein zaila den erantzutea konturatzeaz batera).

Historian zehar, makina bat lagunek eman du bizia Jesusen antzera. Ezagutzen dugu norbait? (eman ditzatela izenak). Eta gaur egun ere, bada bizia besteen alde, mundu hobeaz lortzearen alde, ematen duenik (asko eta asko ezezagunak).

Ikus dezagun ondorengo bideoetako bat. Beren herrialdeak atzean utzi eta helburu berriak bilatzeko, makina bat "oztopo" gainditu eta Europara iritsi diren gazteak agertzen dira.



Ikusi 1.57 minutura arte



Ikusi 3.56. minutura arte



Bideoak ikusi ondoren, talde txikietan banatuko ditugu partaideak, ikusi eta entzundakoari buruz elkarriketan jardun dezaten. Jardunbide eta gogoetaren ostean, ondorioak jaso ditzatela (marrazkiaren bidez, kartela eginez, antzetzuz...).

- *Zer ikusi duzu bideoetan?*
- *Zerk bultzatuta egin dute hainbeste kilometro pertsona horiek? Bideoan agertzen direnez gainera, zein oztopo aurkitu ote dute bidean? Eta zerk bultzatuta egin ote dute aurrera?*
- *Zer utzi dute atzean? Gauza guzti horien artean, zerk bultzatuta egiten ote dute aurrera?*
- *Bere ametsak lortzeko makina bat gauzari uko egin behar izan diot norbait ezagutzen duzu zure inguruan? (ahal izanez gero, ipini izenak, aurpegiak,...).*



3. ZATIA

Pertsonaia hauek bizia emateko prest daude beren ametsak betetzeko eta beren eta senideen bizitzan hobekuntzak lortzeko.

- Horrelako zerbait egiteko gauza ote gara?
- Gure erosotasunei uko egin eta "ihes" egiteko gauza ote gara?

Eman dezagun beste urrats bat, bizitzan ezan beharko genituzkeen jokaerez jabetzeko.

Horretarako bideoa ikusiko dugu. Mutiko indiar batek, keinu arrunt batekin, lankidetza-katea sorrarazi eta egoera zailari irtenbidea ematen dio, inork ezer egiten ez duen edo irtenbidearen bila bakoitza bere aldetik dabilen testuinguruan:



1. Elkarriketan jardunez, bideoan agertzen diren askotariko jarrerak antzeman: paso egin, nork bere aldetik jardun edo ezin daitekeela ezer egin pentsatu, izango dela norbait konpontzeko pentsatu... edo norbera indar guztiez saiatu, oso zaila izan arren.

2. Begiak itxi eta geure egun bat imajinatuko dugu.

*Iratzargailuak jo du eta ohetik altxatzen naiz;
dutxatu, jantzi, gosald...
egiten dut bakarrik ala etxeko norbaitekin...
Kalera irteteko prest nago, ikastolarantz noa,
hara eta hona begiratuz, amekin, aitekin eskolara doazen haurrengan,
barreka edo eztabaidatzen doazen gazteengan... arreta jarritz.
Ogitartekoa biltzeko papera lurrera botatzen
ikusten dut mutiko-neskato bat, eta...
Lagunaren hutsegitearen aurrean barre egiten duen gaztea ikusten dut eta...
Adiskideaz gaizki esaka ari den beste bat ikusten dut eta...
Taldearen bilera dut eta besteak materiala apurtzen ari direla ikusten dugu...
Etxean aita eta ama garbitzen, otordua prestatzen, harrikoa egiten...
ari direla eta laguntza behar dutela ikusten dut...
Amonak deitu du supermerkatuara joan behar duela esanez...
(Eguneroko gertaerak jarriko ditugu nola jokatzeko duten pentsa dezaten...).*

3. Post-it batean, lagun bakoitzak zera idatziko du. Zein zeinu eta ekintza egin dezakeen eguneroko bizitzan besteei laguntzeko, guztien onerako lankidetza eta mobilizazioa eraginez. Bateratze-lanean, gurutzea osatuko dugu post-it guztiekin.

2 GURUTZE-BIDEA PRESTATU



Gaur, bideoetan ikusi dugun makina bat gaztek egin duen bezala, Jesusen ondoan bidea egitea dagokizu.

Jesusekin batera gurutzeraino daraman bideari ekin aurretik, bere urratsak geure urrats bihurtuko ditugu.

Gurutzerako bidea, luzea eta gogorra da; Jesus isilik doa; etsaiak irain egiten diote, auzotarrek aurpegira barre egin, familia negarren dago...

Berarekin doaz historiako kondenatu guztiak, beren lurra derrigorrez utzi behar izan dutenak, ama edo aitarik ez dutenak, behartasun gorrian bizi direnak..., beren ametsak lortzeko iraganeko bizimodua atzean uzten duten gazte horiek...

Ilunaldian, Jesusek eutsi egiten dio, ez du uko egiten, ez da kexatzen, aurrera egiten du; horra hor gurutzerako bidean ematen duen irakaspen handia. Jesusek uste osoa du, bere burua eskaintzeraino. Nola bizi dituzu denak zail edo ezinezko ematen duen unea? Jesusen gurutzea, Jainkoak lagun bakoitzari dion maitasunaren zeinu gorena da, lagun bakoitzak maitasuna jasotzeko duen beharrari ematen zaion erantzun oparoa.

Norbait galtzeko zorian gaudela konturatzean, norbait gure bizitzatik badoala ikustean, bere ondoan denbora gehiago eman nahi izaten dugu, berarekin gehiago hitz egin, gehiago konpartitu..., azken batean, azken une horiek gehiago aprobetxatu nahi izaten ditugu.


Jesus oraindik gure artean da, sufrimendurik latzenaren ordua da...

Hemen geratzeko tentazioa izan dezakegu, galtzeko zorian gauden pertsona hain garrantzitsu horrengatik aieneka... Dena dela... zer egin dezakegu orain?


Gaur, bizkarrean gurutzea daraman Jesusi begiratzean, guk geuk eta gure ingurukoek gurutzea nola daramagun ikusteko unea da.

Pertsona askorentzat (bizimodu hobea izateko ahaleaginean, bide luzea egin duten pertsonentzat), zurezko egurtzat hori, txikia izanik ere, egundoko harlauza da... Horrela izan daiteke gaur hemen gaudenon arteko norbaitentzat ere. Jesusek bere gain hartzen ditu zuen gurutzeak.

ZUREKIN egon nahi duela, bere BIDELAGUN izan eta adi egon zaitezela diotsu Jesusek eta horrela ulertuko duzula nola sentitu zen eta nola sentitzen den Hark jasan zuena jasaten duen hainbeste eta hainbeste lagun. Beharbada, horrela sentitzeko izaten diren arrazoiak ulertuko dituzu. Eta gure inguruan gertatzen den guztian zerikusia duzula aitortuko duzu... Horixe baita gaur erakutsi nahi denaren giltza. Ez dizu ezer aurpegiratzen, ez zaitu salatzen ez hitzez ez begiradez. Zeuk ere bere gurutzeari zama apur bat eransten diozula esan nahi dizu. Horretaz jabetuz gero, gertu izango duzu bihotz-berritzea.



1. ZATI -- HASTEKO, JESUSEN EPAIKETARI BURUZKO ZENBAIT SEKUENTZIA JARRIKO DITUGU. (KRISTOREN GRINA FILMATZEN DU)



2. ZATIA

Taldeka banatuko dira, Gurutze-bideko egonaldiak lantzeko.

Hauxe da jardunbidea:

- Arratsaldez landutakoaren ostean, ekar ditzatela egoera horiek, bizitza horiek,... Gurutze-bideko egonaldietara. Bikoteka egonaldien kartulina landuko dugu, luzeegi gerta ez dadin.
- Egonaldiaren izenburua ipiniko dugu, marrazki esanguratsua eta eragiten dizkigun hitz edo galderak (taldez talde joan, jardunbidea sustatuz, idazki lagungarriak eskainiz)
- "Behar dugu..." aldarrikapena, taldearen konpromisoa jasoz.

Gurutze-bidean, talde bakoitzak dagozkion egonaldiak gidatuko dit, idazkiak irakurriz eta horiei lotutako gogoetak eraginez. Egonaldi bakoitzaren amaieran, "behar dugu" konpromisoa adieraziko dugu (BEHAR DUGU erantzungo dute ozen guztiek).

Egonaldiz aldatzeaz batera, beste talde batek eramango du gurutzea.



1. ETA 2. EGONALDIAK:

JESUS HERIOTZARA KONDENATZEN DUTE ETA GURUTZEA BIZKARREAN HARTZEN DU (JOAN 19, 17)

Eta Jesus, gurutzea lepoan zuela, hiritik «Burezur» -hebreeraz Golgota-zeritzan tokirantz irten zen.

Azalpenak: Jesusen proposamenean, bazen boteretsuentzat deserosoa zen zer bait eta, horregatik, errugabe izanik, merezi gabe, kondenatu egiten dute.

Makina bat gurutze eta kondena dago: herrialde behartsuan jaio, etxea nahitaez utzi mundu hobearen alde borrokatzeko, bizitzan zailtasun asko izan... Gaur, mundu honetako gurutzeek jabetu gara.

- **Nork ez du jasan noizbait beheratzearen, ulertezintasunaren, min fisikoaren edo presio sozialaren gurutzea?**
- **ork ez ditu bere bihotzean sentitu bizitzako bideko zailtasunak?**
- **Gurutzeak jarri ditugu besteen bideetan?**

Jesusek bere gain hartzen du bere gurutzea; geuk ere geure gain hartu behar dugu gure eguneroko gurutze astuna eta eginahalak egin zuzentasun eta senidetasun handiagoko mundua eraikitzeko.



3. ETA 4. EGONALDIAK:

JESUS LEHEN ALDIZ ERORTZEN DA ETA JESUSEK BERE AMAREKIN TOPO EGITEN DU (JOAN 19, 25)

Jesusen gurutzetik gertu bere ama zegoen, Maria amaren ahizpa eta Kleofasen emaztearekin eta Maria Magdalenarekin.

Azalpenak: Irainen, kolpeen eta jendearen jakin-minaren artean, amaren begiradak bat egiten du semearen begiradarekin. Galdera ugari darabil buruan bueltaka: "Zer egin duzu, Seme?". Dena dela, bazekien bere ekintzen ondorioak larriak izango ziratekeela. Samurtasuna sumatuko zuen bere begiradan,... apurtuta zegoen, hotzikara sentituko zuen, eta daga batek arima zulatzen zion... Bere mutila... Mutil ona, ezeren errurik ez zuena... Jainkoaren agindua betetzen ari zen, eta Bera ere ez zen errudun, ulertzea zail egiten bazitzaion ere... Beraien begiraden maitasunez beterik daude; ama maitasuna helarazi nahian dago, ezpataz zulatutako maitasuna bada ere... Maitasuna, heriotza baino indartsuagoa da.

- **Hau ote da gauzak aldatzeko bidea?**
- **Nola bizi ote zuen Mariak, ama izanik, nekaldia?**
- **Zer da guretzat maitasuna?**

Pista dinamikoa: Amaren izena gogoratu eta bizitza osoan eta egunero eskaintzen dien laguntzan pentsatu. Zenbat aldiz amore eman duten eta zenbat aldiz amak adore eman dien ere pentsatuko dute.



5. ETA 6. EGONALDIAK:

ZIRENEKOAK JESUSI GURUTZEA ERAMATEN LAGUNTZEN DIO ETA VERONICAK JESUSEN AURPEGIA LEHORTZEN DU (MARKOS 15, 20-21)

Nahikoa iseka egin ondoren, purpurazko jantzia erantzi eta bere soinekoak jarri zizkieten. Gero, atera eta gurutzean josteko eramane zuten. Sorotik etxerakoan handik zihoan bat, Simon Zirenekoa (Alexandro eta Ruforen aita), Jesusen gurutzea eramatera behartu zuten.

Azalpenak: Jesus inongo babesik ez zuen preso zen; jendeak irain egiten zion, askok errugabea zela uste bazuen ere. Zireneko Simonen antzera, laguntzen bazioten, gaizkidetzat hartuko zutela uste zuen hainbatek; beharbada horregatik, ez nahita, derrigorrez baizik hartu zuen gurutzea bizkarrean. Haren ondoan zela, sentituko zuen bere sufrimendua eta bizirik irauteko egundoko ahalegina. Sufritzen dagoenarengana hurbiltzen zarenear, berarekin batera sufritzeko arriskua duzu.



Denok behar ditugu gurutzea eramaten lagunduko diguten eta gure oinazeak arinduko dituzten Zirenekoak eta Veronicak. Gazte bezala, gertu izango ditugun pertsonak behar ditugu, zalantza eta porrotetan gurekin bat egingo dutenak, bizitza bizitzen ikasten dugun bitartean, bizitzako gurutzea eramaten pazientziaz lagunduko diguten pertsonak.

- **Hurbiltasuna eta aurpegi adeitsua erakusten diegu zailtasunetan dauden pertsonen?**
- **Enpatia, elkartasuna, laguntasuna, ulermena... nola bihurtzen dugu arinago lagun hurkoaren gurutzea?**

Pista dinamikoa: Gurutzeak izanda, gurutzea altxatzen lagundu diogun pertsonarengan pentsatu.

7., 8. ETA 9. EGONALDIAK:



JESUS BIGARREN ALDIZ ERORTZEN DA, JESUSEK NEGARREZ ARI DIRAN EMAKUMEAK KONTSOLATZEN DITU ETA JESUS HIRUGARREN ALDIZ ERORTZEN DA (ISAIAS 53, 6-7)

Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gain bota zuen gu guztion errua. Gaizki tratatu zuten, eta bera apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe; hiltzera daramaten arkumeak bezala, moztailen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu.

Azalpenak: Ibiltaria zinen Palestinan nahiz lurraldetik kanpo. Hainbat gauza iragarri beharra zegoen eta asko ziren galdutako ardiak. Orain behin eta berriz erortzen zara hautsez betetako lurzorura, sokatik tiratuta arrastaka edo gurutzearen zamagatik amore emanda.

Lurrean egoten gara hainbat aldiz eta hainbeste jende altxatu ezinik; baina zuk erorikoa gainditu eta aurrera egiten duzu, apaltasunez, egundoko ahalegina egiten duzu ibiltzeko, azkenerraino jarraitzeko. Gauza asko neketsua da, Jesus...

Zure sendotasuna lagun, aurrera egin dezagula, elkarri eskua eman diezaiogula. Gure erorikoak ez daitezela zauri sendaezin bihurtu. Altxatzea da garrantzitsuen

- **Nola egiten diegu aurre aurkezte zaizkigun zailtasunak?**
- **Ba ote dugu erorikoen ostetik altxatzeko adorarik?**





10. ETA 11. EGONALDIAK:

JESUSI JANTZIAK KENTZEN DIZKIOTE ETA JESUS GURUTZEAN JOSTEN DUTE

(JOAN 19, 23-24)

Soldaduek, Jesus gurutziltzatu ondoren, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, bakoitzarentzat bana; gero tunika hartu zuten, baina josturarik gabea zenez, goitik behera ehundua, akordio hau hartu zuten: «Ez dezagun urra; zotz egin dezagun ea zeini egokitzen zaion».



Azalpenak: Ahalegin guztiak eta bi egin dituzte Jesusi duintasun guztia kentzeko; burua makurrarazi diote, txistua bota eta lurreratu. Guzti hori horrela izanik ere, Jesusek, gizaki bezala, bere ezintasun eta makaltasuna eta beheramendua amorrurik gabe onartzen ditu. Eta, erabat lur-jota egonda ere, barkamena emateko gauza da. Egin dioten guztitik ezerk ez du Berarengan Aitarenganako edo gizakiarenganako gorrotorik piztu.

- **Izaten ote dugu konfiantzarik unerik zailenetan?**
- **Zein sentipen adierazten dugu makalaldietan?**
- **Barkatzeko eta barkamena eskatzeko gauza izaten gara?**

Pista dinamikoa: Lagun bakoitzak beretzat garrantzitsua den zerbaitez gabetu eta gurutzean jarriko du eta bide-gurutzearen azkenerraino bizkarrean eramango da.



12. ETA 13. EGONALDIAK:

JESUS GURUTZEAN HILTZEN DA ETA AMAREN BESOETAN UZTEN DUTE

(LUKAS 23, 44-46)

Eguerdi aldea zen, eta ilundu egin zuen lurbira guztian hirurak arte. Eguzkia ezkutatu egin zen, eta santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen. Jesusek, oihu handia eginez, esan zuen: «Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia». Hau esanik, azken arnasa eman zuen.



Azalpenak: Etsipen ilun eta izugarriak biltzen du Jesus mundua. "Neu naiz munduaren Argia", esan zuena, itzalita dago orain, ekaitzaren erdian kandela balitz bezala. "Neu naiz Ogi bizia" eta "egarri dena datorrela Niregan", oihukatu zuena hilzorian dago eta egarririk latzenean bilduta hilgo da.

- **Nola gainditu etsipen hau?** Aitaren eskuetan jarritz konfiantza amaigabeaz.

Etsaiek lantzaz saihesta zulatuz ziurtatu zuten bizia kendu izana, baina Jesusek argi eta garbi esan zuen: "Neuk emango dut, ez dit inork kenduko, nik neuk eskainiko dut". Maitasunagatik, guri zigun maitasunagatik, geure onerako hil zela sinesten dugu. Eta argitasun osoz erakusten digu zein bideetatik jo: "bere bizia maite duenak suntsitu egiten du".

- **¿Geure bizia besteen alde emateko gauza gara?**
- **Jesusen maitasuna ikusten dugu gurutzean?**
- **Une batzuetan, hitzak alferrekoak dira eta isiltasuna da gure sentimenduak, oinazea, akonpainamendua erakusteko erarik onena.**

Dinamika: Hiru minutuko isilunea egingo dugu gaur egungo gurutziltzatu guztiengan pentsatzeko: tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, pertsona errefuxiatuak, bertan behera utzitakoak, gosez hiltzen diren pertsonak, bullyinga jasaten duten adiskideak, bakar-bakarrik dauden pertsonak... Ez dugu urrun joan beharrik, guregandik hurbil ere makina bat lagun baitago oinazetan. Pentsa dezagun nola bizi garen: oinazetan daudenak onartuz, jokaera hori erraza den ala beste aldera begiratzen dugun...

DOLUA ADIERAZTEKO, PURPURAZKO OIHALA JARRIKO DUGU GURUTZEAREN GAINEAN.



14. EGONALDIA: JESUS HILOBIAN (MARKOS 15, 46-47)

Arimateako Josek izara bat erosi eta, Jesus gurutzetik eraitsirik, izaran bildu zuen eta haitzean zulaturiko hilobi batean ezarri. Gero, harri bat irauliz, hilobiko sarrera itxi zuen. Magdalako Maria eta Maria, Joseren ama, non ezartzen zuten begira zeuden.

Azalpenak: Jesusek esan zuen: "galburua lurrean jausi eta hiltzen ez bada, ez du fruiturik ematen". "Itxaron egin" behar dugu. Gauaren ostean eguna datorrela sinetsita bizi behar dugu. Ezinbestekoa da gure gurutze guztiak berpizkundez zaurituta daudela jakitea. Kristauok nahitaez izan behar dugu gurutzetik harago dagoen itxaropenaren eramaile.



Dinamika: Bakarka, goizeko harria atera eta gure izena ozen esango dugu. Besteekin banatzeko dudak onena sinbolizatzen du: harkaitz izan bestearentzat behar duenean, itxaropen izan... Hori guztiz garrantzitsua da. Azken batean, bizi ditugun zailtasunetatik eta egiten ditugun hutsetatik ikasi ere egiten dugu.

Denon artean gurutzea biharamunera arte utziko dugun lekura eramango dugu eta **'Gure Aita'** errezatuz amaituko dugu.

Gure Aita, zeruetan zarana:
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia
zeruan bezala lurrean ere.

Emoiguzu gaur
egun honetako ogia;

parkatu gure zorrak,
geuk ere geure zordunei
parkatzen deutsegun ezkerro,
ez eiguzu itzi
tentazinoan jausten,
baina atara gagizuz gatxetik.

LARUNBATA

Gaurko egunez, dolua, isiltasuna bizi izango dugu. Apurka-apurka, itxaropena sustatu egingo dugu, ametsak eta ilusioak lurpean utzi gabe, Jesus hil bada ere, Jainko Aitak gure artean eta jardunean jarraitzen baitu. Horregatik diogu ez gurutzeak ez heriotzak ez dutela azken hitza eta Jainkoaren maitasunak ematen diola berriz ere argi eta bizia Jesusi.

Bi ikuspuntutatik bizi dezakegu Jesusen esperientzia hau: Jesusen bizitzaren porrota nabarmenduz edo Jainkoarengan konfiantza jarritz eta itxaropena izanik.

Larunbata egun iluna da, baina antzematen da argi txiki bat ere eta horregatik begiak zabaltu egin behar ditugu gertuko errealitate guztiei egokitasunez begiratzeko eta arretaz entzuteko.

1 OTOLITZA

Lagungarriak:


- Biblias
- Eguneko kartela Ebanjelioko txatalarekin
- Izara zuria
- Sarea
- Bi eskuoihal biribilduta
- Ogi biribila
- Zola gastatuta duen bota pare
- Barruan kandela duen kriseilua
- Bozgorailua
- Biblia
- Koroa
- Oihal-zerrendak
- Jendearen argazkiak beltzez eta zurik eta koloretan
- Botika-kutxa
- 2 NAN edo pasaporte



Gelan sartzean, neska-mutilek itxura batean izaraz estalitako hilotza den zerbait ikusiko dute. Izararen azpian, zerrendako gauzak egongo dira hilotzaren silueta irudikatuz. Neska-mutlak gorpua inguruan jar daitezela. Gelan sartzen diren bitartean, BSOn melodia entzungo dute, La delgada línea roja pelikulan agertzen dana:



Sakatu irudian
bideoa ikusteko



Gaur, zerbait garrantzitsua gertatuko da. Bi boluntario, gorpura hurbil daitezela eta estalkia ken diezaiotela. Izara kentzeaz batera, zerrendako gauzak aurkituko dituzte giza gorputzaren irudia eginez (kartelean jasotako istorioaren jarraipena izango litzateke).



Heriotzaren ostean, larunbat santuak biziaren dinamikan sartzen gaitu eta guri Jaunak isilik egoteko eskubidea duela aitortzea dagokigu. Erantzunik edo zentzurik aurkitzen ez dugunean ere, egoera horiek bizitzen jakin egin behar dugu. Gaur, kanpaiak isilik daude, ez da musika-tresnaren soinurik entzuten, 'Aleluia', pozezko oihua entzun egiten da, baina oso baxu...

Atsedean hartzeko eguna da, bakarrik egoteko eguna, gure barnealdean eta bizitzan itxaropena bizteko eguna... Baina ez da ezer gertatzen ez den egun hutsa, ez... Egun honetan, itxaropena izatera ausartu egin behar dugu...

Larunbat Santua isiltasunerako eta gogoetarako gonbita da, gure talentu pertsonalei buruz galdetzekoa, niretzat, besteengan, nire inguruan, egiten dudanean, naizenean. Egiten dugun gauza bakoitzari zentzua eman behar diogu, hartara iritsi ahal izateko.



Sakatu irudian
bideoa ikusteko

2

BASAMORTUA

Orain, basamortua, isiltasun pertsonala...

Egin klik hemen
basamortua deskargatzeko



3

PAZKO BEZPERAKO OSPAKIZUNAREN PRESTAKETA

Denok batera ekingo diogu ospakizunari
gela batean

Abesti hau entzungo dugu



Begiralearentzako oharra

Bideoak jardunbidea motibatzeke balio izango digu. Munduaren ilunpeez, aurrera egiteko ezinbesteko duen argiaz,... hitz egiten da bideoan. Azkenean, galdera egiten da: Eta zure argia... non dago?

PAZKOA (IGAROTZEA) hitzaren esanahiaren inguruan jardun.

...tik ...ra igarotzen naiz.

Ez da era bat aldatzea. Jarreraz aldatzea da, ikuspuntutik aldatzea, ikuskeraz aldatzea...

Darabiltzagun ohikune eta sinboloek zeinuen garrantziaz jabetzen eta gure bihotzaren barruan zer nahi dugun ikusten laguntzen digute:

Hitza
Sua
Ura
Ogi eta Ardoa

Hitza - Hitzaren esanahi eta garrantzia Israel herriarentzat: ez da iraganeko gertaerak gogoratzea bakarrik, horiek berriz bizitzea baizik. Hitzak jardun eta eraldatu egiten du.

Sua - Suntsitu eta araztu egiten du. Ezinbestekoa berriz hasteko. Berotasuna eman eta argitu egiten du.

Ura - Suaren antzera, suntsitu eta bizitu egiten du. Sinbolo bitxia da. Ura, funtsezkoa da gizakiarentzat, baina heriotza ere esan nahi du. Hil berriz jaiozteko (Bataioa). (Ogia eta ardoa ez dira hain garrantzitsuak gau honetan. Ostegun Santuz nabarmentzen dira. Aipatu egin behar ditugu, afaria, jaia, poztasuna, elkartasuna, eta gau honen bereizgarri diren hitzez baliatuz).

Goizeko gauzak berreskuratuko ditugu. Etiketa markatuta egongo dira (lau ebanjelioetako baten aipua).

- Sarea (Mt 4,19: Jesus giza arrantzale da)
- Bi eskuoihal biribilduta (Jn 13,13-15: Jesus zerbitzari da)
- Ogi biribila (Jn 6,35: Jesus ogi bizi da, janaria)
- Zola gastatuta duen bota pareta (Jn 14,5-6: Jesus bidea da eta Lk 24, 13-15: Jesus bidelagun dugu).
- Barruan kandela duen kriseilua (Jn 8,12: Jesus argi egiten digun argia da)
- Bozgorailua (Mt 5,2.20.22.28.32.34: Jesusek guri esateko zerbait du)
- Biblia (Lk 6,12: Jesusek otoitz egiten du)
- Koroa (Jn 18,32-37: Jesus errege da)
- Oihal-zerrendak (Jn 20,1-10: Jesus berpiztua da)
- Jendearen argazkiak beltzez eta zurik eta koloretan (Mk 1,16-20: Jesusek bere atzetik jarraitzeko dei egiten du)
- Botika-kutxa (Mk 1,29-34: Jesus gaixotasunak sendatzen ditu)
- 2 NAN edo pasaporte (Mt 13,55: Jesus, Jose eta Mariaren semea da eta Mk 1,1: Jesus, Jainkoaren Semea da).

Neska-mutilak taldeka banatu eta talde bakoitzari hainbat gauza esleitu. Gauza bakoitzari dagokion ebanjelioko txatala kontuan hartu eta Jesusen nortasunaz zerbait esan behar dute.

Horretarako, talde bakoitza Bibliaz eta gauzen etiketez baliatuko da eta Jesusen nortasunari buruzko zerbait idatziko du (lagungarrien zerrendan parentesi artean zehazten dira Bibliako txatalak eta gauza bakoitzaren bidez irudikatu nahi dena).

Etiketak gauza bakoitzaren gainean jarri aurretik, taldekide batek ozen irakurriko du Jesusi buruz idatzitakoa (seguruenik orain aldian idatziko dute eta ez iraganean; horretaz jabe daitezela, hau da, bizirik balego bezala hitz egiten dutela hildako batez... Izan be, horixe da Jesusi buruz hitz egiteko era bakarra).

4 EBALUAKETA

Ebaluatu beharrekoak:

- **Egun bakoitzeko jarduera eta jardunbideak**
- **Ospakizunak**
- **Giroa**

Egokia da honetan sakontzea:

- **Zer izan dut gustukoen?**
- **Zer ez zait gustatu?**
- **Zer egin daiteke hobetzeko?**

- **Zer daramat une honetatik (bizi izandako esperientzia, ikasitako zerbait...)?**
- **Zein da une hau hain atsegina izatearen arrazoia? Nola hobe zitekeen?**

Lehen eguneko jardunbidea berreskuratu eta idatzitakoa bete den ala ez ikusiko dugu. Ondo legoke zergatik azaltzea.

